



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
B I Z K A I A

PRENTSARAKO OHARRA

2017/11/14

Bizkaiko Batzar Nagusiek atea itxi deutsie Bilboko Metroan komunak instaletako aukerari

Bizkaiko Batzar Nagusiek, Garraio, Mugikortasun eta Lurraldearen Kohesio batzordean, atea itxi deutsie Metro Bilbaoko instalazinoetan komun publikoak instaletako aukerari. EAJ-PNV eta PSE-EE taldeen kontrako botoakaz, Bizkaiko batzarrek ez dabe onartu Bizkaiko Talde Popularrak aurkeztu dauen eta EH Bildu eta Podemos Bizkaia taldeen aldeko bota jaso dauen arauz besteko proposamena. Proposamen horretan, Aldundiko Garraio, Mugikortasun eta Lurraldearen Kohesio Sailak Bilboko lur azpiko trenbidearen instalazinoetan “lau komun publiko instaletako egin beharreko gestinoak hastea” eskatzen zan.

Jesús Isasi PP taldeko ordezkariak planteau dauenez, erabiltzaileen beharrak kontuan izanda, komun horreek Metroaren hiru burualdeetan –Plentzia, Kabiezes eta Basauri– eta tartean dagon San Inaziokoan instalau ahal izango litzatekez. Isasik “herritarren arazoei konponbideak emoteko” eskatu deutse Aldundiko arduradunei. Adinbakoak eta gero eta gehiago diran 65 urtetik gorako biztanleak, bizkaitar guztien “%25”, izango litzatekez “onuradun nagusiak”, zehaztu dauenez. Konponbide teknologiko moduan, “ordaindu beharreko kabinak” instaletako aukerea proponidu dau.

Aldundiko Gobernua eusten daben talde biek -EAJ-PNV eta PSE-EE-, orain urtebete Bizkaiko Batzarrek Metro Bilbaoren gainean eskatu eben txostena aitatu dabe neurriaren kontra agertzeko orduan. Bertan emoten ziran errazoien artean, “segurtasun arazoak eta gaiztasun teknikoak” eta bidaiaiak “laburrak” dirala dagoz, bidaien batez-besteko denporea “10 minutuko” dalako. Ekain Rico sozialistak esan dauenez, komun bakotxak “185.000 euro” balio ebazan lur azpiko trenbidea eregi aurretik, mantentze-lanetako gastuak kontau barik. Kopuru horren barruan hiru kontzeptu jasoten dira: geltokia metro bi luzatu beharra (80.000 euro); komun bakotxaren instalazinoa bera (60.000 euro); eta ponpaketarako ekipoak (45.000 euro). Laburbilduta, eta Metro Bilbaok egin eban txostenean oinarrituta, lur azpiko trenbideko geltoki guzietan komuna jarteak “5 milioi euroko” inbertsinoa eskatuko leuke.

Gainera, sozialisten eta jeltzaleen eretxiz, Popularren proposamenak, hau da, bakarrik lau komun instaleteak, “ez dau erabiltzaileen arazoa konponduko danik ziurtatzen”, eta Espaniako Estaduko eta Europako gainerako lekuetan egiten danaren kontra joatea be bada, ez dagolako holango komunik daukan metrorik. Errazoi horrek ez dau oposizioa konbentzidu. EAJ-PNV eta PSE-EE taldeen eretxiz, instalazino horreek “jazarpena, bandalismoa eta segurtasun faltea” eragin daikie.

Bozketa abstenidu egin dan Talde Mistoaren eretxiz, PPren ekimena “partxea” baino ez da, komunen instalazinoak arazo teknikoa eragin daikelako eta “ez dauelako erabiltzaileen arazoa konpontzen”. Arturo Aldecoa batzordekideak komunak kanpoan instaleta proponidu dau alternatiba moduan, metroko ahoetatik gertu, udalerriakaz lankidetzan.

Neskutz Rodríguez Podemos Bizkaia taldeko bozeroaleak guzurtau egin dau arazo teknikorik dagonik, eta Metro Bilbaok egindako txostenean garraio horren erabiltzaileen eretxia jaso dan ala ez galdetu dau. “Beharrezkoa da, eta hobekuntza be bada eta, beraz, zentzu osoa dauka”.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
B I Z K A I A

Rodríguezek kritikau egin dau EAJ-PNV eta PSE-EE taldeek ezezkoa justifiketako orduan bidaiaik irauten dauden denporea aitatu izana, “ibilpidea ez dalako laburra Plentziatik Zazpi Kaleetara joan ezkero”.

EH Bilduko Zigor Isuskizak, bere aldetik, metroan komunak instaletako aukera teknikoa defendidu dau, lur azalean dagozan geltokietan, batez be. Bere taldeak neurriaren aldeko botoa emon dau, gaur egun eskintzen dan zerbitzua “hobetu egingo leukelako”.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
B I Z K A I A

NOTA DE PRENSA

14/11/2017

Las Juntas Generales cierran la puerta a la instalación de baños en Metro Bilbao

Las Juntas Generales de Bizkaia han cerrado hoy la puerta, en la comisión de Transportes, Movilidad y Cohesión del Territorio, a la instalación de servicios públicos en las instalaciones de Metro Bilbao. Con el voto en contra de PNV y PSE-EE, la Cámara vizcaína ha rechazado una proposición no de norma del grupo Popular Vizcaíno, que ha sido apoyada por EH Bildu y Podemos Bizkaia, en la que se pedía que el Departamento foral de Transportes, Movilidad y Cohesión del Territorio de la Diputación “iniciara las gestiones oportunas para la instalación de cuatro servicios públicos” dentro de las estaciones del suburbano bilbaíno.

El representante del PP, Jesús Isasi, ha planteado que, atendiendo a las necesidades de los usuarios, estos baños podrían ubicarse en las tres cabeceras del Metro –Plentzia, Kabiezes y Basauri- y en la estación intermedia de San Inazio. Isasi ha pedido a los responsables de la Diputación que “den soluciones a los problemas de los ciudadanos”. Los menores de edad y la cada vez mayor población por encima de los 65 años, “el 25%” de los vizcaínos, serían “los principales damnificados”, ha concretado. Como solución tecnológica ha propuesto la posibilidad de instalar “cabinas de pago”.

Los dos grupos que sustentan al Gobierno foral -PNV y PSE-EE- se han referido al informe de Metro Bilbao que había sido solicitado hace un año por la Cámara vizcaína, para rechazar la medida. En él, se argumentaban, entre otras razones, “problemas de seguridad y dificultades técnicas” y los “cortos” recorridos de los viajes que se sitúan en una media de “10 minutos”. El socialista Ekain Rico ha cifrado, además, el coste de cada habitáculo en “185.000 euros”, antes de la construcción del propio suburbano y sin contar los gastos de mantenimiento. Este montante supone sumar tres conceptos: la necesidad de prolongar la estación en dos metros (80.000 euros); la propia instalación de cada aseo (60.000 euros); y los equipos de bombeo (45.000 euros). En conclusión, y en base al informe realizado por Metro Bilbao, dotar de baño a todas las estaciones del suburbano supondría un inversión de “5 millones de euros”.

Además, para socialistas y nacionalistas, la propuesta popular de instalar únicamente cuatro baños “no acredita que se resuelva el problema” de los usuarios y supone ir en contra también de lo que se hace en el resto del Estado español y en Europa, ya que “ningún metro” dispone de estos servicios, argumento que no ha convencido a la oposición. Para PNV y PSE-EE estas instalaciones pueden ser foco de “acoso, vandalismo e inseguridad”.

El grupo Mixto, que se ha abstenido en la votación, ha tildado la iniciativa del PP de “parche”, ya que la instalación de baños puede acarrear un problema técnico y “tampoco resuelve el problema a los usuarios”. Su apoderado Arturo Aldecoa ha propuesto como alternativa la instalación de servicios públicos en el exterior, cerca de las bocas de metro, en coordinación con los municipios afectados.

La portavoz de Podemos Bizkaia, Neskutz Rodríguez, ha negado que exista un problema técnico y ha preguntado si el informe elaborado por Metro Bilbao ha contado con la opinión de los usuarios y usuarias de este transporte. “Es necesario y es una mejora y, por lo tanto, tiene



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
B I Z K A I A

todo el sentido”. Rodríguez ha criticado que PNV y PSE-EE justifiquen el rechazo por el tiempo de viaje, ya que “el recorrido no es corto si se va de Plentzia a Casco Viejo”.

Por su parte, Zigor Isuskiza, de EH Bildu, ha defendido la posibilidad técnica de instalar baños en el metro, sobre todo, en las estaciones de superficie. Su grupo juntero ha votado a favor de la medida ya que “mejoraría el servicio” que actualmente se ofrece.